

Osasuna
Elebitasunak
arreta hobetzen
laguntzen du

▣ *Ezpalak*
▣ *Argitalpenak*

▣ *Denbora-pasak*
▣ *Makina bat kontu*

Ihesi
Axeria
badator
Hernanira

ARGIA

er d i k o k a i e r a

kultura eta aisia

Kulturaren Agenda 21

Hiri sortzailearen akuilu



Munduko hainbat hirik (Montreal, Porto Alegre, Bogota, Bartzelona, Stockholm...) duela hiru urte adostu zuten agiria da Kulturaren Agenda 21. Kulturak hirien politikan leku nabarmena izatea, hiritarren parte-hartzea sustatzea eta kultura garapen jasangarriaren, gizarteratzearen eta hazkunde ekonomikoaren ondoan jartzea du xede. Hiri eta Tokiko Gobernu Batuak (CGLU) nazioarteko erakundearen Kultura lan-taldeko koordinatzaile Jordi Pascualekin izan gara, Kulturaren Agenda 21en aplikazioa zertan den jakite aldera.

2007ko ekainaren 3a

ARGIA

KATIXA GARATE

35

«Merkatua ez da kultur



2005ETIK DU CGLUREN KULTURA lan-taldearen presidentetza Bartzelonako Udalak. Epea luzatu dezake, baina horretarako udal hauteskundeak ostean osatzen den gobernu taldeak presidentetzari eusteko apustua egin beharko du eta urrian CGLUK Jejun (Hego Korea) egingo duen kongresuan hautatua izan. Jordi Pascual koordinatzaileak (Bartzelona, 1968) gertutik jarraitu du Kulturaren Agenda 21en ibilbidea, Porto Alegreko bileretan eta Agendaren idazketa batzordean parte hartu baitzuen, eta orain arte egindako lanaren balantzea egin digu.

Jordi Pascual, CGLUKo
Kultura lan taldeko
koordinatzailea

Duela 3 urte sortu zenuten Kulturaren Agenda 21 agiria. Zein balantze egiten duzue orain arteko ibilbideaz?

Oso positiboa. Onartu zenean zerbait eskatu behar bazitzaion, CGLUKo hirieta-tik at, tokiko gobernuen, nazio gobernuen eta nazioarteko erakundeen eremuan ezaguna izatea zen eta gaur egun bada, Unescon, Europako Kontseiluan eta gizarte zibilaren hainbat erakundetan. Halaber, asko hazi da bai Kulturaren Agenda 21 onartu duten hirien kopurua bai onartu gabe berau erabiltzen ari diren hiriena. Modu batera edo bestera Kulturaren Agenda 21ekin loturaren bat duten 200 erakundeko zerrenda daukagu.

Ezagunagoa beharko luke izan, baina tira.

“Agiriaren mezua hauxe da: kultura
dinamikoa da eta zuk bizi zaren lekuko
kultura aldatzen, osatzen, garatzen
lagun dezakezu, eta hala behar zenuke
gainera, bizitza bete izatera iristeko”

Zaila da iraunkortasunaren eta garapenaren hiruki bertutetsuan eragitea, alegia, hazkunde ekonomikoaren, gizarte integrazioaren eta ingurumen orekaren hirukia zabaltzea eta kulturarekin —memoriarekin, sormenarekin, aniztasunarekin, ezagutza kritikoarekin...— lauki bihurtzea. Hamar-hamabi urteko lana da hori. Hiriek euren ekarpena egin dezakete. Hala ere, estatuek dute erantzukizun handiena, haiek baitaukate subiranotasuna.

Dokumentua onartuta, zein dira hiriek edo erakundeek ematen dituzten hurrengo pausoak?

Hiruzpalau oinarri funtsezkoak dira. Kultura hiri garapen estrategien erdigunera eramatea da bat. Garrantzitsua da politika kultural indartsu bat izatea, baina gaur egun kultur helburuek udalerriko egitasmoetan eta plangintzetan ere egon behar dute.

Bigarren gomendioa hiritarren partaidetzari buruzkoa da. Hirugarren gomendioak zeharkakotasunarekin du zerikusia, kultur gaiek gizarteratze gaiekin, aberastasuna sortzearekin, hezkuntzarekin harremana izateko beharra azpimarratzen du.

Azkenik, hiri batek aplikatu ditzakeen lau tresna aipatzen dira: Udalak tokiko plan bat egitea kultur eragileekin, udal batzordea osatzea, kultur eskubide eta betebeharren karta sortzea eta herriko kultur inpaktuaren azterketa egitea. Hiri gehienek lehen bi gomendioak jarraitzen dituzte, apenas dagoen azken biak garatu dituen hiririk.

Zein ekarpen egiten dira Unesconen beste deklarazioekin edota nazioarteko agiriekin alderatuz?

Ez dago kultur politikekiko tokiko gobernuen konpromisoa eskatzen duen beste nazioarteko dokumenturik. Normalean gai hauek estatuek lantzen dituzte eta gero pixkanaka herri gobernuetara heltzen dira. Kulturaren Agenda 21arekin alderantzizkoa gertatzen da.

Baina gaur egun, hiri batzuk sormena hitz gakoarekin soilik ari dira lanean kultur arloan: industria sortzaileak, kultur industriak, balio erantsia, merkatura, sortzaileena bakarrik den arloa... Agenda 21ek dio hori guztia beharrezkoa dela, baina egungo politikek kultur aniztasunarekin, hiritarren partaidetzarekin eta merkatuari begiratzen ez dioten kultur

aren berezko balio bat»

ekipamenduekin ere badutela zerikusirik. Kulturaren berezko balioekin du zerikusi gehiago, eta merkatua ez da kulturaren berezko balio bat, bai ordea sormena, memoria, ezagutza kritikoa...

Dokumentuak kultur eskubideak giza eskubideen parte direla dio, ez direla bigarren mailakoa. Era berean, hiritarren kultur askatasunaz dihardu.

Kultur eskubideez hitz egitea oso konplexua da. Pentsamendu korronte batzuk eskubide kolektiboen alde egiten dute eta kolektiboa esatean bozeramaileak dituen komunitate batez ari dira, eta horiek kolektiboaren benetakotasunaren exegesia egiten dute. Horrek eztabaida sortzen du kolektiboak bozeramailerik ez duela behar uste dutenengan. Kulturaren Agenda 21ek dio kultur askatasuna indibiduala dela eta horrek esan nahi du bakoitza komunitate baten edo batzuen partaide dela, baina berak nahi duenaren partaide.



Hiri sortzaileak

“Richard Floridaren *The rise of the creative class* azken hiruzpalau urtetako *hit* anglosaxoia da. Hiri eskandinaviarretan, Kanadakoetan eta AEBekoetan batez ere zoratuta daude hiri sortzailearen ekarpen horrekin. Baina herrialde latinoetan eta garapen bidean daudenetan mezu horrek ez du zentzurik. Hiri kreatiboek enpresa txiki eta ertainetan jartzen dute arreta, enpresa trebakuntzan, turismoan, diseinuan”.

Agenda edozein fundamentalismoaren aurrean lerro sendo bat jartzen saiatzen da, eskubideak interpretazio kulturalaren aztergai izan behar direla dioten aurrean bereziki. Ezin da defendatu giza eskubideei erasotzea onartzen dugula arrazoi kulturalengatik.

Hiritarrak kulturalki aktiboak eta sortzaileak izatea sustatzen du Agendak. Hori ez da lortzen erraza.

Oso zaila da. Lehen Mundua deitutakoaren hiri batean kultur etxe eta liburutegi bidezko hurbiltasun politika batekin egin daiteke. Eta garapen bidean den herrialde bateko hiri batean, espazio publikoen sustapenaren eta haien diseinuan hiritarren parte-hartzearen bidez lor liteke. Agiriaren mezua hau da: kultura dinamikoa da eta zuk bizi zaren lekuko kultura aldatzen, osatzen, garatzen lagun dezakezu, eta hala behar zenuke gainera, bizitza bete izatera iristeko.

Zer proposatzen da kultura gutxiagotuen gainean?

Bi artikulu oso garrantzitsu daude. Kultura gutxituek aniztasunari laguntzen dutela esaten da, ez direla estatikoak, biziak baino. Erabateko onarpen eta babesa merezi dute eta mundu osoan konpromisoa behar da jarraipena izan dezaten. Aspalditik datoz eta denen erantzukizuna da haien segida.

Dokumentuaren lehen oinarriak kultur aniztasuna babestean dihardu. Mundu geroz eta globalizatuagoan, nola berma daiteke hori?

Kultur aniztasunaren kontzeptua oso korapilatsua da. Esaterako, Frantzia kultur aniztasuna-

Jantziak, osagarriak...

615 73 21 12

Deitu eta katalogoa eskatu !!!

www.istilu.com

Iñaki Lopez de Agileta, Bilboko Udaleko Kultur Programazioko zuzendariordea: "Lan egiteko aukera egin dugu eta ez luzitzekoa"

Euskal Herrian Bilboko Udala da Kulturaren Agenda 21 onartu duela CGLUri komunikatu dion udalerri bakarra. 2005eko martxoan onartu zuen Bilboko Udaleko Gobernu Batzordeak Kulturaren Agenda 21ekiko atxikimendua. Ordutik Iñaki Lopez de Agiletak du Agendaren ardura. Maiatzaren 27ko hauteskundeak tarteko, arduradun aldaketa izango da ziurrenik.

Kulturaren Agenda 21ek egiten dituen gomendioetatik zein jarri dituzue martxan?

Agiriari lotu gintzaizkionean konpromiso batzuk geure egin genituen. Esan dezakegu konpromiso horien %80 bete dugula. Esaterako, Film Comission-en sorrera, Berreginen Museoa berriz irekitzea, barrutietako batzorde soziokulturalen sustapena, Bilbao Izan programa, Bilbao Euskaraz eta abar Kulturaren Agenda 21en aterkipean egin ditugu.

Tokiko Agenda 21i buruz informazioa topatu dut Bilboko Udalaren webgunean, ez ordea, Kulturaren Agenda 21i buruzkoa. Ezezaguna al da oraindik?

Ez dugu euro bakarra ere inbertitu publicitateak egiteko, eta ez da deskuidua. Alde batetik, marka orokorrari eman nahi izan diogu protagonismoa (Agenda 21) eta ez azpimarkei (Kulturarena, Eskolena...) eta, bestetik, iruditzen zaigu Kul-



turaren Agenda 21en filosofiarekin kontraesanean legokeela marketinera baliabideak bideratzea gauzatzeetara bideratu beharrean. Lan egiteko aukera egin dugu eta ez luzitzekoa.

Kulturaren Agenda 21ek garrantzia handia ematen dio hiritarren partaidetzari. Azken urteotan, besteak beste Bilboko konpartsak kexu agertu dira, Udalak euren parte-hartzea murriztu dela eta.

Jakina, beti sakondu daiteke parte-hartzearen sustapenean eta logikoa eta bidezkoa da berau eskatzen duten kolektiboak egotea. Alabaina, edozein analisi objektibok onartu behar du parte-hartzea handitu egin dela. Esaterako, oraintxe Bilbo Kultura 2015 Hausnarketa Estrategikoa amaitu berri dugu eta bertan hiriko 70 kultur eragilek kolaboratu dute. Era berean, euskarazko kultur ekitaldiak ugartu egin dira azken bi urteetan, haur eta gazteei zuzendutakoak bereziki, haiek baitira gure jomuga. Festei dagokienez, leku gutxitan izango dira Bilbon bezain herrikoiak eta parte-hartzaileak. Konpartsei esker da hala, baina baita Udalari esker ere.

Kulturaren Agenda 21 ez dago euskarara itzulita. Ba al duzue euskarara itzultzeko asmorik?

Arrazoi duzu. Ahal bezain laster itzuliko dugu.

ren babesle sutsua da nazioartean. Baina aniztasuna kanpora begira defendatzen du, ez ordea barrurantz. Frantziak ez du Hizkuntza Gutxituen Europako Gutuna sinatu. Ez dago koherentziarik.

Edozein erakunde ofizialek honen gainean pentsatu behar luke, ez bakarrik estatuek, baita estatuz gaindiko erakundeek, autonomia erkidegoek eta hiriek ere. Serio hartu beharra dago, gizatiariaren ondare baita. Era berean, lurralde berean bizi diren pertsonen arteko elkarrizketa bideak bermatu behar dira.

Agendak eskaera batzuk egiten dizkie estatuei, adibidez, aurrekontuaren %1 gutxienez kulturara bideratzea. Espainiako Estatuak betetzen al du? Zaila da Espainiako Estatuarena jakitea, ziurrenik autonomia erkidegoak Madrileko gobernu zentrala bezain estatu baitira. Kataluniak %1etik gora bideratzen du eta egungo gobernuak %2tik gora bideratzea du xede. Euskal Herriko kasuan konplikatuagoa da datua aztertzea, foru aldundiak ere estatu baitira eta zaila da zifrak bateratzea. Atzerrian, Frantzia, Finlandia, Kanada... betetzen dute eskakizun hau.

Sormenaren garrantzia

"Kultur prozesu sortzaileetan parte hartzeak giza erremintak ematen ditu: adierazteko gaitasuna, entzuteko ahalmena, orekarekin eta edertasunarekin zerikusia dutenak... Sormen prozesuetan parte hartuta beste inon ikasten ez direnak ikasten dira. Eta horiek giza garapen osoago bat ahalbidetzen dute"

Nazioarteko erakundeei ere egiten die gomendiorik.

Mezua bikoitza da: kultura garapen planetan agertzea eta hiriak gobernu nazionalen inplikazioa eskatzen duten estrategietan ere egon daitezela. Alegia, Munduko Bankuak kultur proiektuak finantzatzea, Nazio Batuen Garapenerako Funtzak kultura ere kontuan izan dezala garapen planetan eta, era berean, ez dezatela erakunde hauek kultura aniztasuna sustatzeko planik martxan jarri estatuekin bakarrik hitz eginda, hiriekin ere hitz egin dezatela.

Zein izango dira Kulturaren Agenda 21en hurrengo pausoak?

Ahalmen operatiboa nahi genuke datorren hiru urteko, hiriei agiriarekin zerikusia duten tresnak martxan jartzen lagundu ahal izateko. Horretarako, beharrezkoa da diru funtsak izatea. Heziketa lana ere egin nahi dugu, hiritartasun aktiboarekin, lurraldetasunarekin, hurbiltasunarekin, sormenarekin zerikusia duen kultur politiken paradigma berri honen inguruko heziketan asko baitago egiteko. Lan asko dugu aurretik. ■